

# 1. saioa herritarrekin: akta

**Eguna:** 2014/03/15

**Ordua:** 10:00-14:00

- **Sarrera:** Erregistro-orria pasa, eta dinamika bat egin dugu, elkar ezagutzeko eta herritarren asmoak jasotzeko. Hona hemen aipatu ziren asmoak:
  - ✓ Denon artean erabakitzea zer den beharrezkoa, Proisari erabilera ematea.
  - ✓ Herriko talde eta ikuspegi ezberdinak elkartzearen garrantzia.
  - ✓ Proisa birgaitzea.
  - ✓ Herriarentzako aberatsa den zerbait sortzea. Kultura, kolektibitatea.
  - ✓ Ikusle izan direnak parte-hartzaile aktibo izatera pasatzea.
  - ✓ San Pedrok zeukan kultura-ahalmena berreskuratzea.
  - ✓ San Pedro kulturaren mapan jartzea.
  - ✓ Hemendik ateratzen denak guretzat eta ondorengoentzat balio izatea. Hori aurrera eramateko: Proisa, frontoia estali...
  - ✓ Azpiegitura berriaren autogestioa Udalaren laguntzarekin.
  - ✓ Arrasateko "hiri lagunkoiak" esperientzia
  - ✓ Zalantza prozesuaren emaitzekin.
  - ✓ Ideia guztiak mahai gainean jartzea, guztion artean zerbait berria eraikitzeko (Proisa/Udala, dikotomia hori haustea/gainditzea).

- ✓ Udaleko eta hortik kanpoko ekintzak elkartzea.
  - ✓ Lortzen den emaitza komuna izatea, eta hori aurrera eramateko ardura denona izatea.
  - ✓ San Pedron kultura dinamizatzea.
  - ✓ Gune baten beharra.
  - ✓ Haur eta helduentzako ekintzei ez ezik, gaztetxoentzako ekintzei ere indarra ematea.
  - ✓ Nola erantzun San Pedrok dituen beharrei.
  - ✓ Behar duen lekua egokitzea, eta hori nola kudeatu erabakitzea.
  - ✓ Kultur arloan dagoen ugaritasunari irtenbidea ematea.
- Asmoak direla-eta, zalantza zegoen prozesuaren irismenez, hau da, San Pedroz edo Pasaia osoaz hitz egiten ari ginen. Aipatu da antzeko beharrak daudela barruti guztietan, baina dinamika oso desberdinak daudela eta gune bakoitzak bere barrutiko beharrei erantzun behar diela (Luzuriagak Antxori, Cirizak Trintxerperi...). Barrutiak elkarren artean ezberdinak dira, eta batek ez du zerikusirik bestearekin. **San Pedrok erantzun beharko die San Pedroren beharrei.**
  - Hizkuntzaren tratamendua zein izango den aipatu da, eta argazkiak aterako direla esan dugu; halaber, Datuen Babeserako Legea aipatu da.
1. **Prozesuaren deskribapena:** Udal Gobernuak azaldu dute zergatik jarri duten martxan prozesu hau. Ondoren, Elhuyar Aholkularitzako teknikariek prozesuaren helburuak, urratsak eta eguneko egitaraua aurkeztu dituzte. Helburuak eta asmoak bat datozen aztertu dugu, eta argi utzi dugu prozesuak zertarako balioko duen eta zertarako ez.
- ✓ **Helburu nagusia**
  - Pasai San Pedroko gizarte-eragile eta herritar guztien artean herriak dituen behar soziokulturalak definitzea eta, horiek kontuan hartuta, gune edo eraikin soziokulturalen erabilera adostea.
2. **Balioak:** saioetan adostu ditugu, konfiantza-giroan lan egiteko, kontuan hartuko ditugun balioak eta arauak. Hona hemen adostutakoak:

- ✓ Gaiaren ildoak ez galtzea. Eraginkorra izatea; muinera joatea.
- ✓ Bakarriketarik ez egitea. Denbora kudeatu eta txandak errespetatzea.
- ✓ Kritikoak izatea, baina era konstruktiboan.
- ✓ Prozesuari zilegitasuna ez kentzea. Prozesuarekiko konpromisoa. Horretarako, gauzak mahai gainean jarri eta garbi hitz egitea.
- ✓ Gauzak kontsentsuaren bidez adostea.
- ✓ Helburuak ez pertsonalizatzea; helburu komuna izatea.
- ✓ Gauzak argi esatea, eta errespetuz hitz egitea.
- ✓ Entzutea eta denon iritzia kontuan hartzea; trintxerarik ez.

Adosteko unean, eztabaida nagusia hau izan da: prozesuari zilegitasuna ematea edo prozesuarekiko konpromisoa. Oro har, ados gaude, baina beste prozesu batzuetan (Adibidez, Ondartxon) zer gertatu den ikusita, zalantzak sortu dira. Bereziki azpimarratu da kontsentsu edo adostasunera iristeko beharra, eta lehengo esperientzia txarrak gainditzea. Aipatu da horrelakoetan ondorio edo adostasunetara iristen dela, baina gero ez dela ematen aurrerapausorik. Azkenik, azpimarratu da, prozesuak gardena izan behar duela, eta horrela izateak asko erraztuko duela dena.

3. **Galdetegiko ondorioak:** egoera soziokulturalaren eta beharren inguruan galdetegiak ateratako ondorioak aurkeztu ditugu. Nolanahi ere, dokumentuak bidaliko dizkiegu parte hartzen duten guztiei, erregistroan adierazi duten helbidera.
4. **Egoera soziokulturala:** hiru talde osatu ditugu, eta talde bakoitzak Pasai San Pedroko egoera soziokulturalaren alor jakin batzuk landu ditu, hainbat teknikaren bidez.

### **1.taldea: ibilbide historikoa (denboraren lerroa).**

**Helburua:** Pasai San Pedoren azken 20 urteetako bilakaera soziokulturala irudikatzea.

Lehenengo, aurrekariak identifikatu dituzte, eta ahalegindu dira horiek alorka sailkatzen. Marra lodien bidez adierazi dituzte jende asko bildu duten ekintzak edo arrakastatsuak; meheen bidez, berriz, hainbesteko arrakasta izan ez dutenak.

### **ONDORIOAK:**

- ✓ Aurrekari indartsuak izan dira. Bi gertakari esanguratsu: espazio publikoen erabilera mugatzen da; Proisaren erabilera mugatzen da.

- ✓ 1993tik 2000. urtearen hasierara mugimendu artistiko garrantzitsua.
- ✓ Etena. Arrazoiak:
  - Espazioen instituzionalizazioa.
  - Belaunaldi-aldaketa, transmisioa.
- ✓ Azken urteetan gertatu den berpiztea.

## **2.taldea: egungo egoera (mapa).**

**Helburua:** Pasai San Pedroko gune soziokulturalak irudikatzea maparen gainean. Hau da, kultur azpiegiturak/baliabideak, horiek zein taldek erabiltzen dituzten, horietan egiten diren ikastaroak, herriko jaiak, urteroko jaiak/ekitaldiak...

Espazio eta baliabide publikoak identifikatu dituzte. Nabarmen geratu da zer alde dagoen azpialdeko San Pedroren eta goialdekoaren artean: ez dugu elkar ezagutzen edo ez dugu elkarren berri.

Eragileak zerrendatu dituzte, eta horien artean eliza, Begiaundi taberna eta Kofradia ere aipatu dira.

Leku bakoitza zeinek erabiltzen duen zerrendatu dute, eta zerrenda izugarri luzea da. Lokal askoren erabilera partekatu egiten da.

EPA eta ludoteka ere hor daude, baina ez dakite zeinek erabiltzen dituen.

## **ONDORIOAK:**

- ✓ **Nola sortu daitezke espazioak, jada egiten ari diren jarduerekin?**
- ✓ Egungo instalazioek ez diote erantzuten kultur jarduerari.
- ✓ Talde batzuek haien beharretara egokitzen ez diren instalazioak erabili behar dituzte.
- ✓ Jarduera batzuk ez dira egiten edo alde batera utzi dira, ez dagoelako gune egokirik.
- ✓ Monopolioaren sistemak kultur jardueren garapena zailtzen du. Berez Udal Aretoan egin daitezkeen jarduera batzuk gimnasioan egiten dira.

- ✓ Autogestioaren garrantzia. Erakundeen zurruntasunak sormenezko adierazpena zailtzen/eragozten du. Batzuek erraztasun handiagoa dute eskaerak eta izapideak egiteko.

### **3. taldea: egungo egoera (sarea)**

**Helburua:** Pasai San Pedroko gaur egungo egoera soziokulturala irudikatzea.

#### **ONDORIOAK:**

- ✓ Eragile asko daude, mota eta arlo askotakoak.
- ✓ Horien guztien artean badira bi eragile beste guztiak biltzen dituztenak: Proisa eta Jai Batzordea (Herri Batzordea). Horien eginkizuna funtsezkoa da, beste guztien arteko lotura bermatzen dutelako.
- ✓ Aniztasuna oso handia da, kultur jarduera ugari egiten dira.

5. **Bileraren balorazioa:** gaurko saioa aurpegitxoaren bidez baloratzeko eskatu diegu. Emaitza aztertu eta arrazoiak bildu ditugu.

#### **Helburuak betetzea:**

- ✓ Epe luzera baloratuko dut. Oraingoan ondo, hasiera bat da.
- ✓ Sentsazio ona.
- ✓ Murgildu gara oraingo beharretan, lehen zer zegoen... eta gustura aritu gara horretan.

#### **Parte-hartzea:**

- ✓ Udaletik garrantzia ematen zaie eragile batzuei, azpiegiturak erabiltzeko ordu ugari, baliabide ugari, eta diru-laguntzak ematen dizkiete; ez dut ulertzen nolatan ez dauden hemen.
- ✓ Teknikariak ez egotea. Ez daude harremanetan herritarrekin eta agian, hau da elkartzeko gunea.

- ✓ Teknikariak daudenean, prozesuak zapuztu egiten dira. Teknikariak sartu izan direnean, pareta bat izan da.
- ✓ Hona etortzea batzuk gauzak leporatzen aritzeko eta beste batzuk gauzak defendatzen... Horrek ez du laguntzen aurrera egiten.
- ✓ Teknikariek beste ikuspuntu bat dute. Garrantzitsua da guk haien lana, zailtasunak eta erronkak ezagutzea, eta haiek gureak ere bai.

#### **Asistentzia:**

- ✓ Jende-mota bat falta izan da.
- ✓ Hutsune nabarmenak.

#### **Metodologia:**

- ✓ Pozik, baina kritika eraikitzaile bat: taldean egin beharreko lana handiegia zen ordubetean egiteko. Denbora gehiago behar genuen, bestela, azpitaldeak egin zitezkeen lanketarako.
- ✓ Metodologia oraingoz gustatu zait; dinamika hauen bidez ondorioak ateratzea. Egoera askatzeko eta aurrera egiteko, ondo dago.
- ✓ Metodologia ondo, bestela, urteak pasa genitzake lanketan.
- ✓ Hiru saio egingo ditugu eta herena xahutu dugu. Politik, ondo pasa dut, baina gai honen inguruko mamiari ez diogu heldu, eta zalantza dut, denbora emango ote digun.
- ✓ Hiru saio mugatuak dira; gehiago zabaltzeko aukera dago?

#### **Giroa:**

- ✓ Oso giro ona, oso pozik. Kafeak asko lagundu du.

#### **Egindako lana:**

- ✓ Beldur horiek. Hasierakoa eta hain orokorra izanda, honek zerbaiterako balioko ote duen beldurra. Teknikariei dagokienez, Udala aldatzen bada, zer gertatuko ote den. Hala ere, aprobetxatu egin behar dugu.
- ✓ Lanak oso politak geratu dira. Denak sartu gara hor, denbora laburrean oso lan ona egin dugu.
- ✓ Ez gara mamira iritsi, baina saioa oso emankorra izan da.
- ✓ Agian, komeni da horrela hastea. Baina kezka dugu, denbora emango ote digun. Zehazgabetasun horrek kezka sortzen du.

- ✓ Poztu nau zerrenda egin ondoren zenbat gauza dauden ikusteak (artista eta eragile ugari). Aprobetxatu dezagun hori herriarentzako gune soziokultural handi bat zehazteko, denontzako izango dena. Hurrengo saioetan helburu hori izan behar genuke buruan.

**6. Hurrengo bilera:** hurrengo saioa herritarrekin martxoaren 29an, 10:00etan, Udal Aretoan.